

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskubide Sozialetako Departamentuak desgaitasuna duten pertsonentzako 70 plaza berri sortu ditu zentro okupazionaletan eta % 11 gehitu du finantzaketarako aurrekontua

Egungo legealdian, beste bi erakunde gehitu zaizkie Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako, Leitzako Udalak kudeatutako zentro batez gain

Osteguna, 2018.eko ekainak 21

Zentro okupazionalak 70 plaza berri sortu dituzte Gobernuarekin sinatutako hitzarmenaren barruan, eta exekutiboak horien kofinantzaketa indartu du, [aurrekontuan](#) egindako % 11ko igoerarekin. Egungo legealdian, Nafarroako Gobernuarekin adostutako zerbitzuei gaineratu zaizkie Downen Sindromearen Elkarte eta Gure Sustraiak Elkarte, Leitzako Udalak eskualdeko biztanleei zerbitzua emateko kudeatzen duen Okile zentro txikiarekin batera.



Laparra presidenteordea eta Inés Frances zentro okupazionalak bultzatzen duten erakundeen ordezkariekin

Horrela, plaza berriak kontuan hartuz, % 7,8 igo da zailtasun fisiko edo psikikoak dituzten pertsonentzat Nafarroako Gobernuak finantzaturiko plazen kopurua, foru lurralde osoan guztira 961 plaza daudelarik. Era berean, exekutiboak dirulaguntzez bidez indartu ditu zentroak kudeatzen dituzten erakundeen ekimenak, horietara 5.847.200 euroko guztizko aurrekontu-saila bideratuz.

Egun, 7 gizarte-erakundek kudeatzen dituzte Nafarroa osoko 21 zentro okupazionalak: ASPACE (Aspace press eta Uxane), TASUBINSA (Beriain, Burlata, Elizondo, Ibaiondo, Lakuntza, Orkoien, San Adrian, Zangoza, Tafalla, Tuter eta Villatuertako zentroak), Elkarkide (Aranzadi, Iturrama, Las Labradas eta Lizardi), Ciganda-Ferrer Fundazioa (El Molino), Leitzako Udala (Okile), Downen Sindromearen Elkarte (Itaca-Sepap) eta Gure Sustraiak Elkarte (Gure Sustraiak).

Garapen pertsonala eta enplegua

ASPACEren ekimenez 1979an sortutako Berako Uxane zentroa izan zen aitzindaria Nafarroako zentro okupazionalen artean. Gure Sustraiak

elkarteak Ollon duen 20 plazako zentroa eta Downen Sindromearen Elkarteak Iruñean duen 36 plazako zentroa dira zerbitzuen finantzaketa Nafarroako Gobernuarekin partekatzea erabaki duten azkenak. Horrez gain, Enpleguaren aldeko Aspace Nafarroa Fundazioak (FANE) zentro okupazional berri bat ireki zuen Iruñean 2017an, Aspace Press, 14 plazaz hornitutakoa. Bestalde, 7 plaza baizik ez dituen Okile zentroa Leitzako Udalaren ekimenez abiatu zen duela zenbait urte, eta egungo legegaldiaren hasieran, Gobernuak emandako finantzaketa egonkorra jasotzen hasi zen.

Duela 39 urtez geroztik, arestian aipatutako erakundeek zentro okupazionalen tankerako ekimenak garatu dituzte, desgaitasun fisiko edo intelektualren kariaz, aldizka edo behin-betiko, merkatuko lan-jardueretan jarduteko aukerarik ez duten pertsonen integrazio eraginkorra lortzeko. Urtero, zentro okupazionalak 10-15 pertsona enplegu-zentro bereziren batera edo ohiko enpleguetara bidera ditzakete.

Jarduera okupazionala, norberaren autoestimua eta garapena hobetzeaz gain, gizarteratzeko tresna ezin hobea bilakatu da, eta zenbait kasutan, enplegua lortzen laguntzeko ere balio izan du, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioan aitortutako eskubidea betez.

Hainbat programa

Zentro okupazional guztiek Terapia Okupazionala eta Doikuntza Pertsonal eta Sozialeko zerbitzuak eskaintzen dituzte, honako alderdi hauek lantzeko: bizitza-ohitura osasungarriak, ariketa fisikoak, estimulazio kognitiboa, ahalduntze, autogestio eta autodeterminaziorako trebetasunak, baliabide komunitarioen erabilera eta norberaren autonomiari eustea. Hala ere, zentro bakoitzak [dagokion jardueraprograma](#) ezartzen du:

Gure Sustraiak elkarteak honako hauek lantzen ditu: ingurumen-hezkuntzarako baliabide naturalen kudeaketa, abeltzia eta lorezaintza-baratzea, ostatu-baliabideak eta sukaldaritza-tailerra.

Downen Sindromearen Elkarteak profil administratiboko lan-gaitasunak, agirien artxiboa, harrera, erosketak, salmentak, kontabilitatea eta marketina lantzen ditu.

FANEk (Enpleguaren aldeko Aspace Nafarroa Fundazioa) teknologia berriekin lan egiten du ASPACE PRESS zentroan eta baratze nahiz lorezaintzako jarduerak, manipulazio industrialak eta diseinua eskaintzen ditu Uxane zentroan.

El Molino zentro okupazionalak honako programa hauek ditu: manipulazio industrialak, baratzea eta lorezaintza, laguntzaileen prestakuntza, sukaldaritza eta catering-a.

Okilen, koadernatzeko eta gutun-azaleratzeko lanak, postontziratze lanak, oparien diseinua eta teknologia berrien erabilera..

Elkarkidek, 215 erabiltzaile dituela, izaera ekologikoa duten jarduerak lantzen ditu; zehazkiago esanda, baratze nahiz lorezaintzako zereginak, produktuen bilketa, manipulazio grafikoa eta industrialak, elikagaien manipulazioa eta aldizkari baten idazketa eta maketazioa.

Tasubinsak 567 pertsona biltzen ditu zentro guztien artean, honako jarduerak hauen inguruan: manipulazio grafiko eta industrialak (etxetresna elektrikoetarako nahiz automobilgintzako osagaietarako piezen egiaztapena eta sekuentziazioa, automobilgintzako osagaietan zinta itsasgarria jartzea; piezei bizarrak kentzea eta manipulatuak objektuak egiaztatzea eta edukiontzietan jartzea; betetzeko, pisatzeko eta etiketatze lanak), sormen nahiz gorputz adierazpenerako jarduerak gain..

Zerbitzuak Foru Komunitate osoan sakabanatuta daude, Ollon bezalako landa-eremu txikietatik Tuteran eta Iruñean bezalako hiri-eremuetaraino, Leiza, Bera, Elizondo, Lakuntza, Zangoza, Tafalla, San Adrian, Villatuerta, Beriain, Burlata eta Orkien gisako tamaina erdiko herriak barne hartuta.